



TUTORETZA MATRIKULA EGITEKO ARGIBIDEAK


GAUR aplikaziora sartuko da helbide hau erabilia <http://gestion.ehu.es/gaur>, eta hautatu kurtsorearekin Ikasleak / Alumnos/as aukera




Hemen Unibertsitateko Akademi gestio gaurkotua aukera hautatu behar da




Hurrengo pantailan doktoregaiak bere erabiltzailea eta gakoa sartuko ditu. Ez badu pasahitza gogoratzen, Gakoa ahaztu dut aukeran klik egin dezake. Behin datu hauek sartuta, Sartu aukera hautatzen da.




Hurrengo pantailan, Doktoregoa hautatu behar da



Hurrengo pantailan, Tutoretza-matrikula hautatu behar da




Hurrengo pantailan agertzen dira doktoregaiak izena emanda dituen proiektu guztien tituluak eta egoerak (aktibo edo inaktibo). Matrikulatu egin nahi den proiektua hautatu behar da, eta honen egoera aktibo izan behar da. Tutoretza-matrikulatu egin nahi den proiektuaren egoera inaktiboa bada, mezu bat bidali behar da hurrengo helbidera: doctorado@ehu.es




Pantaila honetan, Inprimatu abonua agiria aukera hautatzen da eta bankuan tasak ordaintzeko agiria sortzen da. Behin ordainduta, tasak automatikoki egiaztatzen dira eta ez da agiriaren kopiarik bidali behar.


Tesi zuzendariak proiektuaren jarraipena automatikoki baimendu dezake baina inprimatu daiteke ere. Baimena emanda badago, Inprimatu baimen-eskaera botoia desaktibatuta agertuko da. Oraindik ez badu eman baimena, inprimatu daiteke eta sinatzeko aurkeztu. Behin sinatuta, Master eta Doktorego Eskolara bidali behar da, baliozkotzeko.



Tasak ordainduta eta proiektuaren zuzendariak baimena eman eta gero, matrikularen gordekina inprimatu daiteke, Inprimatu matrikularen gordekina aukera hautatuz.



Aukera honek hurrengo pantailara garamatza eta bertan nahi den matrikularen gordekinaren ikasturtea ipini behar da eta gero Hurrengoa botoia aukeratu.



Hurrengo pantailan Inprimatu gordekina botoia sakatu behar da.

